



## **BBK Artegunea**

Bizkaiko kultura- eta sormen-sektorea garatzen  
laguntzeko programa

### **DIZIPLINARTEKO DEIALDIAREN OINARRIAK**

## BBK Artegunea

### Bizkaiko kultura- eta sormen-sektorea garatzen laguntzeko programa

#### [0] TESTUINGURUA.

BBK-k kultura hiritarren egunerokotasunera hurbiltzeko apustua berretsi du. Kulturarako sarbide hori ez da soilik kontsumora mugatzen. BBK Arteguneak pertsonak prozesu artistiko eta kulturalen parte izan daitezzen egoerak sortu nahi ditu.

Herritarren eta sortzaileen artean harremanetarako eta elkarrizketarako espazioak sortzea planteatzen da, pertsonak parte aktibo bihurtuz garatzen diren ekintzetan.

Bigarren mailako helburu gisa, ildo berri honen helburua diziplinarteko proiektuak babestea da, askotan zailtasunak izaten baitituzte laguntza ekonomikoa eta horiek gauzatu eta/edo garatzeko azpiegiturak aurkitzeko. BBK Artegunea **kultura ekimen berritzaileak bultzatzen** saiatzen da.

#### [1] DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen helburua proiektu artistikoak, kulturalak eta sortzaileak hautatzea da, zubiak, loturak eta elkarreraginak eraiki ahal izateko herritarren eta kultura- eta sormen-eragileen artean.

Aukeratutako proiektuak BBK Salako hallean garatuko den diziplina arteko edukien programa baten parte izango dira.

Hautatutako proiektuak askotarikoak izango dira, bai diziplinagatik, bai formatuagatik. Izaera berritzaile handiko sorkuntza-, erakusketa- eta/edo esperimentazio-proiektuak bilatzen dira. Horien guztien ezaugarri komuna erakusketa ikustera hurbiltzen diren pertsonetikiko interakzioa sortzeko balioa

izango da. Edukien programak erakusketara hurbiltzen diren pertsonak interpelatzeko esperimantazio-leku bat sortu nahi du.

Hautatutako proiektuak 2022an eta 2023ko lehen hiruhilekoan gauzatuko dira. Diziplinen, formatuen eta espazioaren aukeren oreka-irizpideetan oinarrituta, BBK-k, hautatutako proiektuen egileen adostasunarekin, edukiak bere urteko programan sartuko ditu.

## **[2] ERAKUNDE ANTOLATZAILEA.**

Erakunde antolatzailea KULTIBA KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIA da, F95788782 identifikazio fiskaleko zenbakiarekin, eta honako helbide sozialarekin: San Migel kalea 8, 1. ezk. 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia).

## **[3] HELBURUAK.**

- Herritarrei gaur egungo praktika artistiko eta kulturaletara hurbiltzen laguntzea, publiko-komunitateen inplikazioa sustatzen duen esperimantazio-espazio bat sortuz.
- Bizkaiko kultura- eta sormen-sektorearen aniztasun eta aberastasun zabala ikusaraztea.
- Izaera berritzailea duten praktika kultural eta artistikoei garapen-aukerak ematea.
- Eduki-programa berritzailea sortzea, BBK Salako Hall espazioa dinamizatzeko.

## **[4] NORI DAGO ZUZENDUTA.**

Deialdi hau artearen eta sorkuntzaren lanarekin eta horren adierazpenekin (moda, literatura, artisautza, arte eszenikoak eta zuzeneko arteak, plastikoak eta bisualak, new media art.) lotutako sortzaile profesionalei eta/edo kolektiboei zuzenduta dago, baldin eta Bizkaian bizi badira eta beren prozesuak eta/edo proposamen artistikoak herritarrei ireki nahi badizkiete eta ikuspegi malgu eta berritzailea badute.

Praktika artistikoen demokratizazioaren eta deszentralizazioaren alde egiten duten eragile sortzaileak eta publikoarekin interakzioa izatea helburu dutenak.

## **[5] PROIEKTUEN BALDINTZAK ETA EZAUGARRIAK.**

- Sortzaile edo kolektibo parte-hartzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, eta kontuan hartu beharko du zer testuingurutan egingo den eta proposatutako espazioaren ezaugarrietara egokitzeko modukoa izango dela.
- BBK Salaren harrera hurbiltzen diren erabiltzaileekin interakzioak sortzera bideratu beharko dira aurkeztutako proiektuak. Lehentasuna eman beharko diote esperimentazioari, herritarrekin elkarrizketa berriak sortzeari. Erakusketa edo solasaldi hutsetik haratago doazen proiektuak bilatzen dira.
- Hautatutako proiektuek gutxienez aurrez aurreko 3 in situ ekintza izan beharko dituzte. «Eszenaratzeari» dagokionez, proiektuen proposamenei irekia izango da.
- Proiektuek honako hauen berdintasun-ikuspegia izan behar dute: generoa, kulturartekotasuna, irigarritasuna eta publiko desberdinen integrazio-gaitasuna.

## **[6] ESPAZIO FISIKOA ETA HOZPIDURA TEKNIKOA.**

Proiekturako erabilgarri dagoen espazioaren planoak erantsi dira, baita material teknikoaren gidaritza ere.

## **[7] HORNIDURA EKONOMIKOA.**

Aukeratutako proiektuek 3.000 euro jasoko dituzte. Lankidetzaren proiektuek (kolektibo eta/edo eragile sortzaile baten baino gehiagoren partaidetza dutenek) 700 € gehiago jasoko dituzte. Lankidetzaren hori proposamenean argudiatu beharko da, eta horietako bakoitzak ekartzen dituen alderdiak definitu beharko dira, eta horrek nola aberasten duen proposamena ere.

Hautatutako proiektuaren egileak edo kolektiboak ordainduko ditu esku hartzeko behar diren materialen kostuak.

Partida horiei BBKren eta balorazio-batzordearen azpiegitura, aholkularitza eta bitartekaritza gehituko zaizkie.

Zenbateko hori honela ordainduko da: %40 kontratua sinatzen denean eta gainerako %60 kontratua amaitu eta proiektua ixten denean, betiere Kultiba Kooperatiba Elkarte Txikiaren izenean faktura edo ordainagiria aurkeztu ondoren.

## [8] PARTE-HARTZAILEEN KONPROMISOAK.

Deialdi honetan hautatutako proiektuaren pertsona edo erakunde titularrak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Aurkeztutako proiektuan egindako edozein aldaketa idatziz jakinaraztea.
- Proiektua deialdian aurkeztutako proposamenean adierazitako epean eta baldintzetan garatzea. Jatorrizko proposamenari egindako aldaketa orok BBKren oniritzia izan beharko du, proiektua ezarri aurretik.
- Proiektuak behar bezala komunikatzeko behar den informazio eta dokumentazio guztia ematea.

## [9] ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK.

Eskabide guztiak oinarri hauek zabaltzen diren egunetik aurrera bidali beharko dira 2022ko urtarrilaren 28ko 23:59ak arte, egun hori barne.

Dokumentazioa posta elektronikoz bidaliko da [artegunea@kultiba.net](mailto:artegunea@kultiba.net) helbidera, eta honako gaia adieraziko du: BBK ARTEGUNEA PROIEKTUA: PROYECTO BBK ARTEGUNEA.

Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Harremanetan jartzeko datu pertsonalak: Izena, posta-helbidea, NAN/IFK, telefono mugikorra, helbide elektronikoa.
- CV eta hautagaiaren biografia edo bere garapen profesionala erakusten duen dosierra.
- Egin beharreko proiektuaren txostena. Gehienez 1.500 hitz izango dira, eta gutxienez honako atal hauek izan beharko ditu:
  - Proiektuaren deskribapen orokorra (proiektuaren definizioa, filosofia, helburuak, jardun-eremua...)
  - Proiektuan parte hartzen duten baliabideak (giza baliabideak, baliabide materialak, baliabide teknologikoak...)
  - Proiektuaren berrikuntza, formatuei, diziplinartekotasunari, erabiltzaileekiko elkarrekintzari eta abarri dagokienez.
  - Euskararen erabilera eta/edo tratamendua proiektuan.

Eskatutako dokumentu bakoitza dokumentu bakar batean erantsi behar da, pdf formatuan (gehienez. 10Mb). Atal honetan zehaztutako dokumentazioa ez duten eskabideak osatzeko eskatuko dira, eta 3 eguneko epea izango dute egoera hori konpontzeko.

Edozein zalantza argitzeko, jarri harremanetan helbide elektroniko honen bidez: [artegunea@kultiba.net](mailto:artegunea@kultiba.net)

## **[10] PROIEKTUAK BALORATZEKO ETA HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK.**

Proiektuak hautatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, BBK-ko ordezkari batek eta Kultibako 2 pertsonak osatua. Batzordeak honako irizpide hauen arabera baloratuko ditu aurkeztutako proiektuak:

- Interes eta kalitate artistikoa
- Berrikuntza formatuan eta edukian.
- Bertaratutakoekin eta publikoekin konektatzeko eta elkarreragiteko gaitasuna.
- Proiektuaren izaera berritzailea, erabiltzaileekiko interakzio-prozesuak bultzatzeko.
- Proiektua egingarria izatea. Proiektua BBK-ko halleko baliabide eta espazioetara egokitzea.
- Euskararen presentzia eta/edo erabilera proiektuaren garapenean.

Deialdiaren ebazpena 2022ko otsailaren 10etik aurrera jakinaraziko da. E-maila <https://salabbk.bbk.eus/> eta <https://www.kultiba.net/noticias/> webguneetan argitaratuko da eta zuzenean jakinaraziko zaio onuradunari emandako helbidean. Hautatutako pertsonak jakinarazpena jaso eta astebeteko epean berretsi beharko du onarpena.

Aurkeztutako proiektuek gutxieneko kalitate-irizpideak betetzen ez badituzte, Kultibak eskubidea du deialdia hutsik uzteko.

## **[11] IRUDI-ESKUBIDEAK.**

Parte-hartzaileek onartzen dute BBKren espazioetan egindako irudietan (argazkia, bideoa, etab.) agertu ahal izango direla, ondoren informazio edo sustapen helburuekin zabaltzeko. Hortaz, erabilera hori baimentzen dute, ohorerako eskubidea urratzen duten erabilera logiko eta mugatuekin, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko eremutik kanpo egindako beste edozein erabilera baimen honetatik kanpo geratuko da berariaz.

## **[12] OINARRIAK ONARTZEA.**

Parte-hartzaileek, deialdira aurkezte hutsagatik, oinarri hauek onartzen dituzte.